# Barrika

ehbildu *informatzen*

Invierno 2024-25ko negua



# Denontzako galera: 112.643 €

## perdidos en 2023 con este sistema de reciclaje

**Eredu berria behar dugu hondakinen kudeaketan.**

Necesitamos un nuevo modelo en la gestión de los residuos.

**Pribatizazioranzko urratsak Nagusien Etxean?**

Defendamos lo público

**Turismoaz mintzo**

¿A quién beneficia el turismo?

**Palestinak gure elkartasuna behar du**

STOP genocidio

# Gestión de residuos, necesitamos un nuevo modelo

EL ACTUAL ES INEFICAZ, CARO PARA EL AYUNTAMIENTO Y GENERA QUEJAS DE VECINOS Y VECINAS

La gestión de residuos es uno de los temas que más insatisfacción genera entre las y los vecinos de Barrika, como hemos podido observar (y escuchar) en los plenos celebrados este curso. Ya tratamos este tema en nuestra anterior revista *(ver QR)* y no parece que la situación haya mejorado desde que la publicamos.

Los datos de recogida selectiva son los peores de la Mancomunidad, ya que la recogida de materia orgánica en 2023 supuso un 0,87% del total, siendo de 0 kg algunos meses. ¿Y cómo es posible? Con el actual sistema, si en el contenedor marrón se deposita algún residuo que no sea orgánico, las y los operarios encargados de su recogida mezclan el contenido de todo el contenedor con la fracción resto, con lo que no se computa como orgánico y el Ayuntamiento tiene que pagar un importe mayor por su gestión. La gestión de la fracción resto (contenedor gris) es más cara para el ayuntamiento que la de los residuos separados.

## El fracaso del quinto contenedor

Estos resultados ponen de manifiesto el fracaso que ha supuesto la puesta en marcha en 2021 del quinto contenedor, al menos tal y como se planteó, ya que no ha cumplido su objetivo de mejorar los datos de separación. Así, consideramos que no se puede justificar la inversión realizada a lo largo de todos estos años. En otras palabras, los actuales datos de separación se habrían obtenido aunque no hubiera contenedor marrón.

Además, y desde 2021, el Ayuntamiento ha cambiado varias veces de sistema. En primer lugar, cerró con llave los contenedores de fracción resto y de orgánico, obligando a las y los vecinos a utilizar una tarjeta para abrirlos. Al de unos meses, ambos contenedores quedaron abiertos ya que no se había contratado el servicio de mantenimiento de las cerraduras y muchas se fueron quedando sin batería o simplemente se estropearon. Y, finalmente, ha dejado abierto el de la fracción resto cerrando el de orgánico. Esto ha supuesto un gran gasto, ya que el sistema ha fallado desde el principio.




**BARRIKAKO GAIKAKO BILKETAREN EHUNEKOA**
PORCENTAJE DE RECOGIDA SELECTIVA EN BARRIKA

Ahondando en esto, muchas vecinas y vecinos nos han señalado que los cambios producidos no han sido correctamente comunicadas. Además, también se han quejado de la inadecuada ubicación de los contenedores.




**Estatistikek erakusten digute gaikako bilketaren datuek ez dutela erakusten finkatutako joera positiboa.**

Las estadísticas demuestran que los datos de recogida selectiva no muestran una tendencia positiva consolidada

**BARRIKAKO GAIKAKO BILKETAREN EHUNEKOA**
PORCENTAJE DE RECOGIDA SELECTIVA EN BARRIKA

## *Busquemos una alternativa, entre todas y todos*

Pese a este desolador cuadro, en **EH Bildu** no ha cundido el desánimo, por lo que creemos que cabe mejorar en este ámbito, y mostramos nuestra voluntad para aportar en un proceso de mejora del sistema de gestión de residuos, en el que consideramos fundamental integrar la participación social. ¡El medio ambiente (y las arcas municipales) nos lo agradecerán!

# Hondakinak kudeatzeko eredu berri bat behar dugu

ORAINGOA EZ DA ERAGINKORRA, UDALARENTZAT GARESTIA DA, ETA HERRITARREN KEXUAK SORTZEN DITU

Hondakinen kudeaketa da Barrikako herritarren artean ezinegon handiena sortzen duen gaietako bat, ikasturte honetan egindako osoko bilkuretan ikusi (eta entzun) ahal izan dugun bezala. Gai hau gure aurreko aldizkarian landu genuen ***(ikus QR kodea)*** eta ez dirudi egoera hobetu denik.

ORGANIKOA
ORGÁNICO
ERREFUSA
FRACCIÓN RESTO
PAPERA ETA KARTOIA
PAPEL Y CARTÓN
BEIRA
VIDRIO
ONTZI ARINAK
ENVASES LIGEROS
BESTE BATZUK
OTROS*

* Voluminosos, Podas, Aceite usado y Reutilizables

**2023an materia organikoaren bilketa guztizkoaren % 0,87 izan zen**

**La recogida de materia orgánica en 2023 supuso un 0,87% del total**

Iturria / Fuente:
BARRIKAKO UDALA

Gaikako bilketaren datuak Mankomunitateko okerrenak dira, izan ere, 2023an materia organikoaren bilketa guztizkoaren % 0,87 izan zen, 0 kg hilabete batzuetan. Eta nola liteke? Egungo sistemarekin, edukiontzi marroian organikoa ez den hondakinen bat uzten bada, hura biltzeaz arduratzen diren langileek edukiontzi osoaren edukia errefusarekin nahasten dute, eta, beraz, ez da organikotzat hartzen, eta Udalak zenbateko handiagoa ordaindu behar du bere kudeaketagatik. Errefusaren kudeaketa bereiztutako hondakinena baino garestiagoa da udalarentzat.

## Bosgarren edukiontziaren porrota

Emaitza horiek agerian uzten dute 2021aren amaieran bosgarren edukiontzia martxan jartzearen porrota, planteatu zen bezala behintzat, ez baitu bereizketa-datuak hobetzeko helburua bete. Horrela, uste dugu ezin dela justifikatu urte hauetan guztietan egindako inbertsioa. Bestela esanda, egungo gaikako bilketa-datuak edukiontzi marroirik egon ez arren lortuko lirateke.

Gainera, eta 2021az geroztik, Udalak zenbait aldiz aldatu du sistema. Lehenik eta behin, organikoa eta errefusaren edukiontziak giltzaz itxi zituen, eta, beraz, irekitzeko txartel bat erabiltzera behartuta geunden. Handik hilabete batzuetara, bi edukiontziak irekita geratu ziren, sarrailak mantentzeko zerbitzua kontratatu gabe zegoelako, eta horietako asko bateriarik gabe geratu ziren edo hondatu egin ziren, eta, azkenean, errefusarena irekita utzi du, organikoa itxiz. Horrek gastu handia ekarri du, sistemak hasieratik huts egin baitu.

Auzokide askok adierazi digute egindako aldaketak ez zaizkiela behar bezala jakinarazi. Gainera, edukiontzien kokapen desegokiagatik ere kexatu dira. Ohiturak aldatzeko ordua da. Zaborraren poltsa errefusaren edukiontzira botatzetik hondakinak bereiztera pasatu behar dugu, ingurumenarengatik. Horretarako, administrazioak beharrezko baliabideak jarri behar ditu herritarren ohitura aldaketak errazteko. •





## *Bila dezagun alternatiba bat, guztion artean*

Egoera tamalgarri honetan, **EH Bildu**n ez dugu amorerik eman nahi, arlo horretan hobetu daitekeela uste baitugu, eta hondakinak kudeatzeko sistema hobetzeko prozesuan gure ekarpena egiteko borondatea erakusten dugu. Horretarako, Barrikako herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da. Ingurumenak (eta udal kutxek) eskertuko digute!

# Licitación HOGAR DEL JUBILADO: falta de profesionalidad, transparencia y diligencia

ES LA ÚNICA INSTALACIÓN MUNICIPAL QUE SE SACA A LICITACIÓN PARA SU EXPLOTACIÓN PRIVADA.

El **HOGAR DEL JUBILADO** fue inaugurado en 2010, costó más de 270.000 euros y consta de más de 200 metros de superficie y 30-40 metros de terraza. Como corresponde por Ley su adjudicación debe realizarse por concurso público y por un tiempo máximo de explotación de cuatro años. La licitación en vigor, sin embargo, data de marzo de 2018 y por tanto, debería haberse renovado en 2022.

A la desidia en la renovación por parte de este (y el anterior) equipo de gobierno, debe sumársele además la incompetencia en el primer pliego, que el Ayuntamiento aprobó ya fuera de fecha en noviembre de 2023 y que, afortunadamente para los intereses de Barrika, **EH Bildu** logró anular, ya que de seguir adelante con el proceso, el mismo, «podría declararse nulo de pleno derecho».

A principios de diciembre, esto es prácticamente un año después de la licitación anulada, el equipo de gobierno no ha publicado un nuevo pliego. La última excusa es que están a la espera de recibir un estudio de mercado para fijar el precio. Pero, entonces, ¿la propuesta aprobada por **iBarrika** y el **PNV** cómo determinó el precio? ¿En base a qué rebajaron el precio respecto a 2018? ¿Puede licitarse una instalación pública por cuatro años sin evaluar su impacto económico? Al parecer, para **PNV** e **iBarrika**, sí. Y mientras tanto, sigue en vigor un contrato que debió renovarse en marzo de 2022 generando una situación de dudosa legalidad.

Esta licitación pone de manifiesto la poca profesionalidad, diligencia y transparencia en la gestión de **PNV** e **iBarrika**. No hace más que generar sospechas y es muy difícil de comprender, al menos desde un punto de vista que tenga como objetivo preservar los intereses municipales.

## CONDICIONES DEL PLIEGO ANULADO

Ocultándolo a la oposición, el Ayuntamiento publicó un pliego de licitación del Hogar del Jubilado plagado de aspectos poco transparentes y claramente lesivos para los intereses municipales:

- **CONDICIONES ECONÓMICAS GRAVOSAS:** La instalación ha subido de categoría de Bar a Restaurante y, sin embargo, el precio de licitación HA BAJADO: de 3.600 euros más IVA (en 2017) a 3.600 mas IVA (en 2023). Ese canon anual no es suficiente ni para cubrir los gastos que genera a cargo del Ayuntamiento. En 2023, por ejemplo, el déficit del Hogar del Jubilado ha sido de cerca de 3.000 con un precio mayor. Las nuevas condiciones, si bien modifican la cuota energética a cargo del Ayuntamiento (hasta ahora 50% de la electricidad y 100% del gas), los 3.600 euros de ingreso no permitirían salir del déficit. Esto es, se gastaría más dinero público que el que se recupera con su explotación privada. Así viene siendo desde 2018.
- **NULA TRANSPARENCIA Y PUBLICIDAD:** No sólo se ocultó a la oposición, sino que la publicidad que le otorgó el equipo de gobierno fue la mínima: colgarlo en el perfil del contratante. No se usó ninguna herramienta de comunicación.
- **NULA PARTICIPACIÓN:** A pesar de su relevancia, no se discutió en comisión informativa y, a diferencia de otras ocasiones, tampoco se contrastó con la asociación de personas jubiladas JubiBarrika, colectivo a quien debería estar dirigido el local.
- **EXCLUSIÓN INJUSTIFICADA:** De las dos ofertas presentadas la mesa de contratación excluyó a una sin motivo justificado, como demostró el recurso de **EH Bildu**.

## *En defensa de lo público*

En **EH Bildu**, consideramos que lo ocurrido con el Hogar del Jubilado es un intento de dar un paso hacia la privatización de una instalación pública y de utilizar la inversión del Ayuntamiento en beneficio de intereses privados. Las vecinas y vecinos de Barrika corremos el riesgo de perder un centro social público y que éste se convierta en un negocio privado. En este sentido, representantes de **EH Bildu** nos reunimos con miembros de la asociación de personas jubiladas JubiBarrika para trasladarles nuestros puntos de vista al respecto.

# Profesionaltasun, gardentasun eta ardura falta

Nagusien Etxea da, Barrikan, ustiapen pribaturako lizitaziora ateratzen den udal instalazio publiko bakarra. 2010ean inauguratu zen, 270.000 eurotik gorako kostua izan zuen eta, 200 metro karratu baino gehiagoko azalera eta 30-40 metro karratuko terraza ditu. Legeak zehazten du lehiaketa publikoaren bidez esleitu behar dela, eta gehienez ere lau urtez ustiatu ahal izango dela. Indarrean dagoen lizitazioa, ordea, 2018ko martxokoa da, eta, beraz, 2022an berritu behar zen. Gobernu-talde honek (eta aurrekoak) berritzearen inguruan erakutsitako utzikeriari, gainera, gaitasun falta gehitu behar zaio. Izan ere, Udalak 2023ko azaroan plegu batzuk epez kanpo onartu baitzituen, **EH Bildu**k baliogabetzea lortu zituenak, Barrikako interesen onurarako. Izan ere, eta prozesuak aurrera egin balu, «zuzenbide osoz deusez jo zitekeen».

Abendu hasieran, hau da, baliogabetutako lizitaziotik ia urtebetera, gobernu-taldeak ez du plegu berririk argitaratu. Azken aitzakia da merkatu-azterketa bat egitearen zain daudela prezioa finkatzeko. Baina, orduan, **iBarrika**k eta **EAJ**k onartutako proposamenak nola zehaztu zuen prezioa? Zergatik jaitsi zuten prezioa 2018tik? Lizitatu al daiteke instalazio publiko bat lau urterako, haren eragin ekonomikoa ebaluatu gabe? Antza denez, **EAJ**ren eta **iBarrika**ren ustez bai. Eta bitartean, 2022ko martxoan berritu behar zen kontratu batek indarrean jarraitzen du, alde legaletik zalantzazkoa den egoera batean.

Lizitazio honek agerian uzten du **EAJ**ren eta **iBarrika**ren kudeaketan dagoen profesionaltasun, ardura eta gardentasun eskasa. Susmoak sortu besterik ez du egiten, eta oso zaila da ulertzen, gutxienez, udal-interesak zaintzea helburu duen ikuspuntu batetik.

## Baliogabetutako pleguen baldintzak

Oposizioari ezkutatuz, Udalak Nagusien Etxeko lizitazio-pleguak argitaratu zuen, modu ez gardenean eta udal-interesentzat argi eta garbi kaltegarriak zirenak:

- **BALDINTZA EKONOMIKO GARESTIAK:** Instalazioa kategoriaz igo da, tabernatik jatetxera, eta, hala ere, lizitazio-prezioa JAITSI EGIN DA: 3.600 euro gehi BEZetik (2017an) 3.600 euro gehi BEZera (2023an). Urteko kanon hori ez da nahikoa Udalak Nagusien Etxean ordaindu behar dituen gastuei aurre egiteko: 2023an, adibidez, Nagusien Etxearen defizita 3.000 euro ingurukoa izan da, prezio handiagoarekin. Baldintza berriek, Udalak ordaindu behar duen kuota energetikoa aldatzen badute ere (orain arte elektrizitatearen %50 eta gasaren %100), 3.600 euroko diru-sarrerek ez lukete defizita estaltzeko aukerarik emango. Hau da, ustiapen pribatuarekin berreskuratzen dena baino diru publiko gehiago gastatuko litzateke. Hala izan da 2018tik.

- **GARDENTASUNIK ETA PUBLIZITATERIK EZ:** Oposizioari ezkutatu egin zitzaizkion, eta gainera, gobernu-taldeak eman zion publizitatea hutsaren hurrena izan zen: kontratatzailearen profilean baino ez zen jarri. Ez zen inolako komunikazio-tresnarik erabili.

- **PARTE-HARTZERIK EZ:** Informazio-batzordean ez zen eztabaidatu, eta, beste batzuetan ez bezala, Jubi-Barrika jubilatuen elkartearekin ere ez zen hitz egin, instalazioak kolektibo honetako kideei zuzenduta egon beharko lukeenean.

- **JUSTIFIKAZIORIK GABEKO BAZTERKETA:** aurkeztutako bi eskaintzetatik bat justifikatutako arrazoirik gabe baztertu zuen kontratazio mahaiak, **EH Bildu**k jarritako errekurtsoak frogatu zuen bezala.



Xehetasun gehiago, esteka honetan.

QR kode hau eskaneatu

# Turismoaren fenomenoa, argi eta garbi hitz egiteko asmoz





Udan bisitari uholdea jasotzen du Barrikak. Jaso eta jasan, ez dagoelako egunik euren presentzia nabaritzen ez denik. Eta ez fisikoki, baizik eta atzean uzten duten arrastoagatik, zaborrak nonahi botata, kotxeak, furgonetak eta karabanak edonola eta edonon aparkatuta...

Honekin ez ditugu karabanan edo furgonetan datozenak seinalatu nahi, etxebizitza turistikoetara datozenek ere hamaika arazo sortu izan dituztelako, baina arazo hauek toki zehatz batzuetan kokatzen dira, eta ibilgailu horiena herriko edozein puntutan.

Badirudi Udalak gainera zetorkiguna ez duela ikusi, eta aldez aurretik bideratuta edo behintzat aurreikusita behar lukeena ez duela martxan jarri. Hau da, furgoneta eta autokarabanentzako aparkalekuren bat bilatzea edo antolatzea, edo behintzat herrian gune bat bilatzea denak sakabanatuta izan beharrean. Udalak ez egitearen politika du ardatz, eta gero, arazoak datozenean, komeriak. Ikusi duenean ibilgailu hauek espaloiak ere betetzen zituztela luzeera dela eta, seinale batzuk jarri dituzte erdigunean neurri batetik aurrerako luzeera dituztenei aparkalekua debekatuz.

Urte osoan zehar, badira leku batzuk arazo guzti hauek jasaten dituztenak, motorrak espaloian aparkatuta, kotxeak errepidearen erdian pasabidea oztopatzen... baina arazo hori udan asko larritzen da bertan sortzen den zarata, zabor eta zikinkeriarekin. Hondartza guneak dira kaltetuenak, iraganezin bihurtzeraino. Kotxeak, pertsona andana, zaborra zakarrontzietatik kanpo, badira egunak Barrikatik ibiltzea jasanezina bilakatzen dena.

Espero dugu, etorkizunean, Udalak arazo hauei konponbidea bilatzea, azken aldian herritarren artean kezka areagotu egin delako, turismoak sortutako eragozpenengatik batik bat. •

**Udalak ezer ez egitearen politika du ardatz eta gero, arazoak datozenean, komeriak**



## IMPACTO DEL TURISMO

# Otro año más sin control

Son muchas las personas que visitan Barrika para hacer turismo. Turistas que recibimos y en cierta medida, soportamos, porque no hay día en que no se note su presencia. Y no solo físicamente, sino también por el rastro que dejan atrás, con basuras tiradas por todas partes o coches, furgonetas y caravanas aparcadas de cualquier manera y en cualquier parte...

Con esto no queremos señalar a quienes vienen en caravana o en furgoneta, porque las y los usuarios de viviendas turísticas también han generado un sinfín de problemas, pero estos se circunscriben a algunas zonas concretas, y el de los vehículos se extiende a más puntos del municipio.




Parece que el Ayuntamiento no ha visto lo que se nos venía encima y no ha puesto en marcha lo que debería haber encauzado, o al menos previsto, de antemano. Podría haber organizado algún tipo de aparcamiento para furgonetas y autocaravanas, o al menos buscar un espacio en el pueblo para tenerlas a todas juntas y así no estén desperdigadas. El Ayuntamiento se basa en la política de no intervenir, luego llegan los problemas y pasa lo que pasa. Cuando estos vehículos han empezado a llenar también las aceras debido a su longitud, el Ayuntamiento ha colocado unas señales en el centro prohibiendo el aparcamiento a los vehículos de mayor tamaño.

Algunos lugares sufren problemas a lo largo de todo el año, con motos aparcadas en la acera o coches obstaculizando el paso; pero estos se agravan con el ruido, la basura y la suciedad que se incrementan en verano. Las zonas de playa son las más afectadas, hasta el punto de convertirse en intransitables. Coches, multitud de personas, basura fuera de las papeleras. Algunos días caminar por Barrika no resulta nada agradable.

Esperamos que, en el futuro, el Ayuntamiento pueda solucionar estos problemas, ya que en los últimos tiempos ha aumentado la preocupación entre la ciudadanía por las molestias derivadas del turismo.

ehbildu BARRIKA

# *Ba al zenekien...?*
## *¿Sabías qué...?*

**... Udalak kreditu aldaketekin gobernatzen duela, udal aurrekontuak ez daudelako patxadaz diseinatuta?**

...el Ayuntamiento gobierna a golpe de modificaciones de crédito, porque los presupuestos municipales están diseñados de forma deficiente?

**...2025a hasiko dugula Udal Aurrekontuak onartuta izan barik?**

...empezaremos el 2025 sin tener aprobados los Presupuestos Municipales?

**...EH Bilduk, Uribe Kosta mailan, Bizkaibuseko lineen ibilbidea zabaltzea proposatu duela? Horrek autobusen maiztasun handiagoa ekarriko luke.**

...EH Bildu, a nivel de Uribe Kosta, ha propuesto ampliar el recorrido de las líneas de Bizkaibus? Esto supondría una mayor frecuencia de autobuses.

**...urriaren 7ko osoko bilkuran EAJ ez zela gai izan onartu zen 60.000 eurotako kreditu aldaketa zertarako zen?**

...en el pleno del 7 de octubre el **PNV** fue incapaz de aclarar el fin de la modificación de crédito de 60.000 euros que se había aprobado?

## GURE AZKEN LORPENAK
### NUESTROS LOGROS MÁS RECIENTES

1. **Osoko bilkuren aktak Udalaren webgunean argitaratzea.**
   Publicación de las actas de los plenos en la página web del Ayuntamiento.

2. **Kontratu txikien inguruko informazioa kontratatzailearen profilean argitaratzea.**
   Publicación de la información relativa a los contratos menores en el perfil de contratante.

# Palestina

EH Bilduk irmoki salatzen du palestinar herriaren genozidioa. Honen aurrean, erasoa lehenbailehen eta behin betiko gelditzea eskatzen dugu.

**Horregatik deitoratu nahi dugu sarraski hau salatzeko eta palestinar herriarekin elkartasuna adierazteko Barrikan zegoen murala Udalak ezabatzeko hartu zuen erabakia.**

**EAJk, uztailaren hasieran, Palestinaren aldeko mozioa aurkeztu zuen udaletxean eta hilabete amaieran amaieran «Palestina eta Euskal Herria libre» zioen murala ezabatzea agindu zuen. Horrela jokatzen du EAJk, gauza bat esan eta beste bat egin, hitz politak aurretik eta kontrako ekintzak atzetik, mozioa aurkeztu baina murala ezabatu.**

**Ekintza honekin nahiko argi geratu da uztaileko mozioa halabeharrez aurkeztu zuela EAJk, EH Bilduk aurkeztuko zuela ikusita eta zerbait egiten dutenaren itxura eman nahian. Hain izan zen horrela alkateak ez zuela bere kalitatezko bozka erabili berau aurrera ateratzeko, egun berean landutako Osakidetzaren inguruko mozioarekin egin zuen bezala.**

**Ezabatzeko erabili duten argudioa da guztiekin berdina egiten dela, baina herrian zehar hainbat mural ikus daitezke, batzuk aspaldikoak eta beste batzuk oraintsukoak, eta guztiek hor darraite.**

**Gainera, 500 €tik gorako kostua izan du muralaren ezabaketak. Ematen du Udalak dirua soberan daukala, inbertsiorik egiten ez duenez, berdin zaiola dirua huskerietan erabiltzea.**

## «Paredes mudas como en dictadura»

En EH Bildu denunciamos rotundamente el genocidio del pueblo palestino. Ante esto, pedimos, que la agresión israelí cese de inmediato.

Por eso lamentamos la decisión del Ayuntamiento de eliminar el mural que había en Barrika denunciando esta masacre y mostrando solidaridad con el pueblo palestino.

A principios de julio, el PNV presentó una moción a favor de Palestina en el Ayuntamiento, y a finales de mes ordenó eliminar el mural que decía **«Palestina eta Euskal Herria libre»**. Así actúa el PNV, dice una cosa y hace la contraria, bonitas palabras y acciones no tan bonitas: «Presento la moción y borro el mural».

Así, queda bastante claro que la moción de julio fue presentada por el PNV obligado por las circunstancias, tras saber que EH Bildu iba a presentar una moción al respecto y con el objetivo de dar la impresión de que «hacen algo». Tanto fue así que la alcaldesa no utilizó su voto de calidad para sacar adelante la moción de los jelkides, como sí hizo con la moción sobre Osakidetza que se trató el mismo día.

El argumento utilizado para justificar el haber borrado el mural es que se hace igual con todos, pero por el pueblo se pueden ver varios murales que no se han borrado, algunos antiguos y otros más recientes.

Además, la eliminación del mural ha tenido un coste superior a los 500€. Da la impresión de que al Ayuntamiento le sobra dinero. Como no realiza inversiones, le da igual que el dinero se utilice en frivolidades.

